

PRENTSA TXOSTENA

44
DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETA DISKO AZOKA
2009ko Abenduaren 4tik 8ra
44



- 1.- Fitxa teknikoa
- 2.- Azoka aurretik prentsaurrekoak
- 3.- Azoka egunetan prentsaurrekoak
- 4.- Gerediaga elkarteko telefono eta helbideak
- 5.- 44. edizioko laburpena
- 6.- Aurtengo datuak
- 7.- Azokaren antolatzailea: Gerediaga elkartea
- 8.- 2009ko Durangoko argizaiola omen sariak: hasierako garaietako andereñoak
- 9.- Ahotsenea: Sortzaileen gunea
- 10.- Haur literatura aretoa
11. Aurkezpen aretoa
- 12.- Egitaraua
- 13.- Eranskinak



1.- FITXA TEKNIKOA

Izena: Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan

Aldia: 44. edizioa

Non: Durangoko Landako Erakustazoka

Noiz: 2009ko abenduaren 4tik 8ra

Ordutegia: 10:30-20:00

Bultzatzailea: Gerediaga Elkartea

Zenbatero: Urtero

Izaera: Irekia (sarrera doan)

Sailak: Editorialak, banatzaileak, diskoetxeak, erakundeak eta kultur eragileak.

Betebeharreko ezaugarria: Euskarazko argitalpenak eta euskal gaiak edozein hizkuntzatan.

Antolatzailea : Gerediaga Elkartea

Babesle nagusia : Bizkaiko Foru Aldundia, kultura saila

Babesleak: Eusko Jaurlaritza, Durangoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, BBK, Eroski Fundazioa, LESA Landako Erakustazoka, EITB.

Ohorezko gonbidatua: Ramon Llull institutua, Hizkuntza eta kultura katalanak

Laguntzaileak: Berria, Deia, Noticias de Gipuzkoa, Diario de Noticias, Noticias de Alava, Diario Vasco, El Correo, Arrate Irratia eta Gara.



2.- AZOKA AURRETIK PRENTSAURREKOAK

Prentsa kontaktu orokorra:

Josu Bergara

prentsa@durangokoazoka.com

688631081 – 946818066

www.durangokoazoka.com

Azaroak 18, Durangon

Elkartegian 12:00etan, 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren egitaraua aurkeztuko da.

Babesleek parte hartuko dute (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Durangoko Udala, BBK eta Eroski Fundazioa).

Aurtengo kultura gonbidatua aurkeztuko da: Kultura katalana. Horretarako Institut Ramon Llull erakundeko parte hartzea izango da ekitaldian.

Honen ostean, Castellars-en erakustaldiaz gozatuko dugu.

Informazio gehiago

Institut Ramon Llull www.llull.cat

Prentsa kontaktua:

Gavina Garcia

[ggarcia@llull.cat](mailto:garcia@llull.cat)

Premsa

Institut Ramon Llull

Telf. (0034) 649 85 08 17

Mercè Estela

Premsa

mestela@llull.cat

Institut Ramon Llull

tlf. 609 887 316

Azaroak 24, Baionan

Elkar megadendan 10:00etan, 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko

Azokaren egitaraua aurkeztuko da Iparraldeko komunikabideentzat. Iparraldeko musikari eta idazleek parte hartuko dute.

Prentsa kontaktua:

Frank Suarez

eke-suarez@wanadoo.fr

Euskal Kultur Erakundea

Institut Culturel Basque

Lota - B.P. 6

64 480 Uztaritze

05 59 93 25 25

www.eke.org



Azaroak 25, Bilbon

Bilboko Kafe Antzokian AHOTSENEA ekimena aurkeztuko da. Gerediaga elkartearen babespean, idazle zein musikariek aukera izango dute euren proiektuak zuzenean aurkezteko publikoaren aurrean, Durangoko Azoka egunetan (5, 6 eta 7an).

Kontaktua:

Gotzon Barandiaran

info@ahotsenea.net

656 796 209

Azaroak 26, Durangon

Plateruena Kafe Antzokian BERBARO elkartea eta Gerediaga elkartaren eskutik, **Haur Literatura Aretoaren** aurkezpena. Egitaraua eta ekimen ezberdinak aurkeztuko dira.

Pantxika eta Txinparta pailazoen gidatuta

3.- AZOKA EGUNETAN PRENTSAURREKOAK

Abenduak 4

10:30ean, 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka-k atea zabalduko ditu.

19:00etan Azokaren aurkezpen ofiziala, erakunde publikoen ordezkariekin.

Abenduak 5

10:30etan Ahotsenea proiektuaren hasiera-ekitaldia.

Abenduak 8

12:00etan, Elkartegian

Gerediaga Elkarteko ordezkariak 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren balantzea egingo dute.



4.- GEREDIAGA ELKARTEKO TELEFONO ETA HELBIDEAK

Elkarteko ordezkariak:

Nerea Mujika, Gerediaga Elkarteko presidentea
Jon Irazabal, Durangoko Azokako zuzendaria
Aitziber Atorrasagasti, Gerediaga Elkarteko kudeatzailea

Egoitzak

Nagusia

Astolako auzitegi-etxea
Astola Auzoa
48220 Abadiño

Administratiboa

Larrasoloeta 3,
4200 Durango

Posta zuzenbidea

157 posta kutxa – 48200 Durango

Tel.: 94 681 80 66

Faxa: 94 621 80 23

E-maila: gerediaga@durangokoazoka.com

Web orria: www.gerediaga.com // www.durangokoazoka.com

KOMUNIKABIDEEKIN HARTU-EMANAK

Josu Bergara

prentsa@durangokoazoka.com

688631081 – 946818066

www.durangokoazoka.com



5.- 44. EDIZIOAREN LABURPENA

Data: abenduaren 4tik 8ra.

Ordutegia: 10:30 - 20:00

- Gai nagusia: **Kultura katalana** (edo Katalandar kultura)
Institut Ramon Llull-en laguntzaz, Euskal eta katalan kultura eta hizkuntzak elkartzen dituen hainbat ekitaldi antolatu dira.
- Azokako kartela Lur Merino bilbotarrak egin du.
- Azokaren berri:
www.durangokoazoka.com webgunea etengabe berritzen izango da, aktualitatea, argazki galeria, etab.
Landako Gunean hainbat telebista pantaila ipiniko dira, besteak beste, Azokako egitarauaren berri etengabe emateko.
- **Ahotsenea**
Sortzaileen Gunea. Gerediaga elkartearen laguntzarekin antolatutako ekimen honetan idazle eta musikariek euren lanak publikoari zuzenean eta hurbiletik aurkezteko aukera izango dute.
- **Haur Literatur Aretoa**
Urtetik urtera gaztetxo gehiago erakartzen dituen aretoa. Berbaro Elkarteak dinamizatzen du. Egitarau propioa dauka (ikus egitaraua atalean) Umeen Gunea.
- **Aurkezpen aretoa.**
Nagusiki, liburu eta diskoen aurkezpenetarako espazioa berreskuratu da. Formatu txikiko aretoan, bisitariak egileekin zuzeneko hartu-emana izango du. Egitarau propioa daukan aretoa da. Aurkezpen Gunea.
- **Durangoko argizaiola omen-saria**
Gerediaga Elkarteak 44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan "Durangoko Argizaiola" omen-saria ikastolen hasierako garaietan andereño izan zirenei emango die, garai hartako bost andereñoen pertsonan. Hegoaldeko lurralde bakoitzeko andereño bat aukeratu da, eta iparraldeko beste bat: Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparralde), Izaskun Gastesi (Nafarroa), Karmele Esnal (Gipuzkoa) eta Begoña Aranguren (Bizkaia).



6.- DATUAK

Partaideak

Partehartzaileak156

Eskari berriak14

Erakusmahaiak

Stand kopurua 292

Arruntak 279

Teknologia berriak 16

Nobedadeak

Nobedadeak459

Liburuak 308

Diskoak 69

Aldizkariak 23

Bideoak 16

CD-ROM 8

Bestelakoak 35



7.- AZOKAREN ANTOLATZAILEA: GEREDIAGA ELKARTEA

Durangaldearen ondarea eta kontzientzia komuna berreskuratzeko eta indartzeko asmoz sortu zen Gerediaga Elkartea 1965ean. Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea hartu zuen izena orain 44 urte eta harrezkero Durangaldeko Merinaldeko ondare historiko-artistiko-kulturalean lan egin du.

70-80ko hamarkadetan, Euskal Herriaren egoera sozio-politikoak eraginda, Gerediagak hainbat egiteko hartu zituen beregain eta bestelako ekintzatan ari zirenen elkargune bihurtu zen: alfabetatze taldeak, ikastolen aldekoak, herri eta auzoetako jai batzordeak, dantza taldeak, antzerki taldeak... Gerora talde horiek beren bidea egiten hasi ziren eta horren adibide dira AEK, dantza taldeak, Euskal Dantzarien Biltzarra eta Geroa antzerki taldea.

Gerediaga elkarteak 44 urtez Durangaldeko ikerketan laguntzen eta sustatzen lan handia egin du. Euskal kulturaren arloan ezaguna egin da batez ere Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka dela eta. Baina, aurrerago aipatu denez, Azokaz aparte, bestelako egitekoei aurre egiten diete eta urtean zehar hainbat ekintza diferente antolatzen ditu Gerediaga Elkarteak.

Hona hemen laburtuta horretako ekintza eta zeregin garrantzitsuenak:

Kultura ondarea: babeseta eta zabalkundea

Sorreratik Gerediaga Elkarteak jarrera berezia agertu du gure eskualdeko kultur ondarearen alde. Lan hauek arlo bitan banandu ahal ditugu. Batetik ondareek behar duten babesaren aldeko lanak burutuz eta bestetik gure eskualdeko ondarearen ikerketa eta zabalkundea bultzatuz.

Durangaldeko dokumentategia

Durangaldeko Dokumentategiak honako hau dauka helburutzat: Durangaldeko herrien edozein gairi buruzko informazioa batzea, informazio hori datorren euskarria (aldizkari, egunkari, DVD...) edozein izanda ere. Behin informazio hori bildu eta antolatu ondoren, hura kontsultatu beharra daukan edozeinen esku jartzen da.

Argitalpenak

Eskualdeari buruzko liburu, liburuxka, aldizkariak eta abar argitaratzen dira urtean zehar. Danetarikoak argitaratzen dira: eskualdeari buruzko lan orokorrak zein herri edo eraikuntza edo gertakizun zehatz bati buruzko materialak.

Beste batzuk: Erakusketak, Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa, Merinaldeko Ezpatadantzari Eguna eta Merinalde Eguna



Astola Aldizkaria

Durangaldeko bizitzako arlo ezberdinei buruz egin diren lanen eta artikulu- en zabaltzailea izateko helburua dauka Astolak.

Historia, arkeologia, etnografia, folklorea, literatura, musika eta bestelako gai eta zientzia batzuk dute lekua Astolako orrialdeotan. Ikerketa lanak dira. Kasu askotan sekula argitaratu gabeak edota kaxoi batean ahaztuta geratzen diren horietakoak.

Orain dela bi urte, urtekaria izateko asmoarekin jaio zen aldizkaria, jasotako erantzun onari jarraituta, 8 lanez (euskaraz eta gazteleraz) osotutako argitalpena dakar hirugarren alean.

Informazio gehiago: www.gerediaga.com

Katalogoa

On-line ipiniko dugun katalogoaren erreplika paperezko formatuan argitaratuko du Gerediaga Elkartek, urtero egiten duen moduan, BBKren laguntzarekin. Nobedadeen zerrendaz gain, katalogoan, 2008. urteko ekoizpenaren zerrenda jasotzen du. Eta euskal argitaletxe eta diskoetxeen datu eguneratuak ere katalogo honetan biltzen dira.



8.- 2009 DURANGOKO ARGIZAIOLA OMEN-SARIA **HASIERAKO GARAIETAN ANDEREÑOAK IZANDAKOAK**

Gerediaga Elkartek 1992. urtean beste garai batzuetan zenbait pertsona eta erakundek euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraiatzeko “Durangoko argizaiola omen-saria” ematen hasi zen, berba bitan, esateko, “gauen argi” izan zirenei eskerrak emateko.

Azokako egunetan ekitaldi berezia egingo da horretarako San Agustin Kultur Gunean. Sari-emate ekitaldiak “Gauetan Argi” izena hartu du. Ekitaldia, aurten, abenduaren 5an iluntzeko 20:30ean egingo da.

“Durangoko Argizaiola” omen-saria ikastolen hasierako garaietan andereño izan zirenei emango die, garai hartako bost andereñoengan islatuko delarik. Hegoaldeko lurralde bakoitzeko andereño bat aukeratu da, eta iparraldeko beste bat: Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparralde), Izaskun Gastesi (Nafarroa), Karmele Esnal (Gipuzkoa) eta Begoña Aranguren (Bizkaia).

Durangoko Argizaiola sarituak urtez urte

1992	Jon Bilbao
1993	Bernardo Estornes
1994	Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia
1995	Euskal zinemagintza: Koldo Larrañaga, Benito Ansola, Pio Caro Baroja, Fernando Larrukert, Nestor Basterretxea eta Euskadiko Filmoteka
1996	Antonio Zavala Etxebarria
1997	Bittor Kapanaga
1998	Juan Jose Agirre
1999	Jose Maria Jimene Jurio
2000	Klaus F. A. Niebel
2001	Juan San Martin
2002	Labayru ikastegia
2003	Gerardo Bujanda
2004	Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegia”
2005	Gotzon Garate
2006	Jakin Aldizkaria
2007	Maiatz Aldizkaria
2008	Juan Zelaia



9.- AHOTSENEA: Sortzaileen gunea

2008an hasitako ekimen honek, sortzaileei Durangoko Azokan publikoaren aurrean zuzenean eta hurbiltasunez euren lanak aurkezteko gunea eskainiko dizkie. Horrela, ahotsenea **sortzaileen gunea** izango da.

AHOTSENEA, sortzaileen gunea gune jakin bat izango da, egungo Azoka aterpetzen duen Landako eraikinaren alboan finkatuta. Bi espazio izango ditu: bata musikarentzat eta bestea literaturarentzat.

Programazioa bi kazetariak, koordinatzaileak eta produkzio arduradunek diseinatu dute idazle, musikari, editore eta disketxe zein argitaratzaileen adostasun eta oneritziarekin. Durangoko Azokara bertara etorriko diren sortzaileekin izango ditugun elkarrizketa, mahai-inguru, solasaldi eta zuzeneko musika emanaldiek osatuko dute programazioa, baina batez ere, literaturazale/musikazale/ ikusle/entzuleen parte hartzea bermatuko da.

Patxadaz eta zuzenean

Elkarrizketak luzeak, irakurriaren gainean eta zuzenean irakurriz, patxadatsuak eta nahikoa zuzenak edo barrukoiak izango dira, datozkeenei normalean ematen ez zaien horixe emateko; sortzailearekin harreman beroa, bizia, galderak egiteko aukera eta guzti. Zein giro sortu nahi dugun eta, berba bat datorkigu gogora: mendebaldean sasoi onari, epelari, gozoari esateko erabiltzen dana: aroa.

Gainera aurten, bertan gertatzen den guztia zuzenean aditzeko aukera landuko dute, Interneten bidez Euskal Herri osora zein mundura hedatuko da. Egun horietan Azokara hurbiltzeko aukera ez dutenek eta Euskal Herriatik kanpo bizi diren euskaldunek AHOTSENEAk zabalik dirauen artean euskal sortzaileon jardunaren berri izateko aukera izango luke.

Ahotsenea ekimen independente, profesional eta autonomoa da. Eta euskalduna, jakina.



Partehartzailleen zerrenda: luze eta anitza

Antzerkia, musika, literatura...sortzaileen gunera partehartzaile mota ezberdinak hurbilduko dira, ta haien lana gertu-gertutik ezagutzeko aukera egongo da: Igor Estankona, Pirritx Eta Porrotx, Yolanda Arrieta, Aitziber Alonso, Leire Urbeltz, Iker Goenaga, Euskal poesia erotikoaren antologia, Karmele Igartua, Hedoi Etxarte eta Alain M Urrutia, Bide Ertzean, Unai Elorriaga, Edorta Jimenez, Mikel Urdangarin, Juanra Madariaga, Rafa Rueda, Gose, Xabier Amuriza, Siroka eta Zein da Zein?, ETXE, Iñaki Plaza eta Ion Garmendia, SKT, Juan Ramon Makuso, Anger, Ken Zazpi, Uxue Alberdi, Berri Txarrak, Oier Guillan, Josu Bergara, Xabi San Sebastian, Xabi Borda, Mamba Beat, Karmele Jaio eta Piztiak, besteak beste.

Informazio gehiago:
Gotzon Barandiaran
info@ahotsenea.net
656 796 209

Hiru eguneko ekimena izango da 2009ko AHOTSENEA: abenduaren 5etik 7ra.
Goizeko 10:30etatik gaueko 20:00etara.

10. HAUR LITERATURA ARETOA

BERBARO elkarteak umeentzat egitarau luze eta zabala aurkeztuko du aurten. Irakurketak, eskulanak, tailer praktikoak, ipuin kontalariak eta hamaika ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute etxeko txikienak.

Landako gunearen alboan egongo den aretoan, haurrentzat eta gurasoentzat prestatutako hainbat ekimen egongo dira. Goizeko 10:30etatik gaueko 20:00etara.

Informazio gehiago egitarauan.



11.- AURKEZPEN ARETOA

Aurkezpen Aretoa, Landako Gunean bertan, erakustazoka barruan kokatuta dagoen gela bat da. Iaztik martxan jarritako espazio ireki honek, 30 bat lagunentzako edukiera du, eta bertan, Azokaren parte diren argitaldari eta ekoizle guztiek, egileekin batera aurkezpenak egiteko aukera izango dute. Goizeko 11:00etatik 20:00etara egitarau jarraia izango da edonoren eskura.

Eranskinetan duzuen taulan agertzen dira egunez egun aurkeztuko direnak.



12.- EGITARAUA

Abenduaren 4an

11.00 etan Elkartegian	Break/ bertso /hip-hop Saioa
11:00 etatik Aretolan	Aurkezpen Aretoko taula kontsultatu
19.00 etan Elkartegian	Inaugurazioa. Andreu Carranzaren [IRL] eskutik Hitzaldia: “ Katalunia, birtualtasunaren sorteri ”
21.30 etan San Agustin	“Mirant al Cel” filmaren emanaldia. Jesús Garay (filmearen zuzendaria) eta Fermin Muguruza (filmaren soinua)rekin.

Abenduaren 5an

11:00 etatik Ahotsenean	Igor Estankona, Pirritx Eta Porrotx, Yolanda Arrieta, Aitziber Alonso, Leire Urbeltz, Iker Goenaga, Euskal poesia erotikoaren antologia , Karmele Igartua, Hedoi Etxarte eta Alain M Urrutia, Bide Ertzean, Unai Elorriaga
11:00 etatik Aretolan	Aurkezpen Aretoko taula kontsultatu
Haur Literatur Aretolan	12.30 “ <i>Ikazkinaren alaba</i> ” Alaitz Muro ipuinkontalari eta Agurtzane Villate ilustratzaile 15.30 “ <i>Olatu guztien gainetik</i> ” Miren Agur Meabe eta Enrique Morente; “Agur ama!” Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso 17.30 “ <i>Ipuinak musikarekin</i> ” – Oihulari Klown taldea 18.30 “Nur eta herensugearen tenplua” Toti Martinez de Lezea
Andra Mariko Elizpean	CircBover [IRL] . Kaleko zirkoa 11.30etan eta 18.30etan
12.30 ean Elkartegian	Jason Epstein -en hitzaldia.
18.30 ean Elkartegian	Poesia Saioa Joan Margarit. [IRL] Itxaro Borda eta Leire Bilbaoren partaidetzarekin Aurkezlea: Makuso



20.30ean San Agustinen

Gauean Argi – Argizaiola Sariak

Aintzinako andereñoen zuzendutako omenaldia

- **Gema Arrugaetaren** argazkiak

- **Karlos Jiménez** piano jolea

- **Patxi Zubizarreta** gidoilaria

- **Felipe Barandiaran** aurkezlea

Sarituak:

Arabatik – **Izaskun Arrue**

Iparraldetik – **Libe Goñi**

Nafarroatik – **Izaskun Gastesi**

Gipuzkoatik – **Karmele Esnal**

Bizkaitik – **Begoña Aranguren**

Abenduaren 6an

Ahotsenean

Edorta Jimenez, Mikel Urdangarin, Juanra Madariaga, Rafa Rueda, Gose, Xabier Amuriza, Siroka eta Zein da Zein?, ETXE, Iñaki Plaza eta Ion Garmendia, SKT, Juan Ramon Makuso, Anger

Aukezpen Aretoa

Aurkezpen Aretoko taula kontsultatu

Haur Literatur Aretoa

11.30 “Zaintxo” Pello Añorga

12.30 “*Pantxika, txinparta, ederra zalaparta!*”

Zurumuru antzerki lana.

17.00 “*Juanita Kux Kux*” – Maite Franko ipuin kontalaria

* Egunean zehar eskulan ezberdinak, irakurketa librea eta euskal karaokea egongo dira.

18.30ean Elkartegian

Euskal eta katalan musikari errebaso historikoa Marc Biosca [IRL] eta Joseba Martin “La Jungla Sonora” irratsaioko kidearen eskutik



Abenduaren 7an

Ahotsenean	Ken Zazpi, Uxue Alberdi, Berri Txarrak, Oier Guillan, Josu Bergara, Xabi San Sebastian, Xabi Borda, Mamba Beat, Karmele Jaio, Piztiak
Aukezpen Aretoan	Aurkezpen Aretoko taula kontsultatu
Haur Literatur Aretoa	12.30 <i>“Elefante txiki bat”</i> Rosa Mari martinez ipuin kontalaria txontxogiloekin. 17.00 <i>“Enero Atxaren errezetak”</i> – liburuaren aurkezpena 18.00 <i>“Arre, arre” eta “Tristan triste”</i> Antón Kazabon * <i>Egunean zehar eskulan ezberdinak, irakurketa libre eta bideo emanaldiak egongo dira</i>
12.30 ean Elkartegian	Liburu digitalaren inguruko hitzaldia: Juan Mari Torrealdai <i>“Liburua unibertso digitalean”</i> Andoni Sagarna <i>“Edukiak paperaz haraindik”</i> Jorge Jiménez <i>“Liburu elektronikoa eta editorea. Edizio eredu berri baterantz?”</i> [IRL] Enric Faura <i>“Edi.cat, liburu digitalaren esperientzia”</i>
18.30 Elkartegian	Barriketaldia Kirmen Uribe eta Albert Sanchez Piñol [IRL] <i>Moderatzaile: Goizalde Landabaso</i>
21.00 San Agustinen	Kontzertua: Gerard Quintana [IRL] eta Jabier Muguruza



Abenduaren 8an

Haur Literatur Aretoa	12.30 “ <i>Antzokiko istorioak</i> ” Jakin eta jolas antzespenak 17.00 “ <i>Dantzaz blai!</i> ” – berbena- jakin eta jolas antzespenak <i>* Egunean zehar eskulan ezberdinak, irakurketa libre eta bideo emanaldiak egongo dira</i>
Aurkezpen Aretoa	Aurkezpen Aretoko taula kontsultatu
11.00 etan Elkartegian	Puntueus eta Puntucat proiektuen aurrekariak eta gaurkotasuna

13.- ERANSKINAK

- 13.1 AURKEZPEN ARETOKO TAULA
- 13.2 HARREMANETARAKO TELEFONO ETA HELBIDEAK